

+ Inaitasuna

IV URTEA - N.º 65

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Urtia (10) 1959

Sazerdote langilleak

Irailaren (setembrearen) 14-an, importantzia aundiko erabagi bat argitaratu izan dau Erromako Sede Santuak: Aurrerantzean, Frantziako sazerdote langilleak —abadeak eta frailleak— ezin leikee bear egitu fabriketan, faktoriatan, itxasontzietan.

Barri onek, gora aundikoa izanarren, leku gutxi aurkitu eban orduan periodikoetan: momentu atan ain zuen be joan zan Nikita Khruchchev Estadu Alkartuetara eta bota eben rusoak igotzaira euren Lunik Bigarrena.

Katolikoan artean barriz, Frantzian batez-be-re, zarata aundia atara dau Erromako erabagiak.

Iru izan dira erabagi ori artzeko motibua: "Nekez onartu leiteke —diño Pizzardo Kardinalak, Pariseko artzobispoari emoniko dokumentuan— Frantziako langilleak kristiñau erlegiñoa zearo galdu dabela, eurretari guztiz askok bateko marka sagradu ta kendueziña artu dabeta (...). Ez da derrigorrekoa, sazerdoteak fabriketan langille lez bear egitea (...). Fabriketako lana ezin leiteke kompondu sazerdote bizi-modu ta obligaziñoakaz (...).

Zetan esan be ez, egiazkoak dira iru motibua. Oraindiño euneko larogetamarrek artzen dabe Frantzian bateo santua. Fedea guztiz epelduta eukiarren, Frantziako langilleak ez deutse oraindiño oso osoro uko egin Eleizeari, eta kristiñau erlegiñoako ritu batzuk ez ditue ezegaitik bere itxi gura. Sasoia da oraindiño, Frantziako langilleak bide onera elkarteko. Eta Eleizeak alegen guztiak egingo dauz, asmo ori lortuteko.

Baiña orretarako, ez dauke sazerdoteak zetan joan bear lantegietara bear egitera. Euren egin-

kizun printzipala beste bat da: Eskini Jaungoikoari mezako sakrifizioa eta Eleizearen otoitz publikoa, partidu kristiñauan artean sakramentuak eta Jaungoikoaren verbea. Fabriketan lan egiten egun guztia igarotekotan, ezin leikee sazerdoteak euren estaduko obligaziñoak bete eta eureri jagoken bizimodu eraon.

Orregaitik Sede Santuak gura dau langilleen arteko apostoladu ori aurrerantzean kristiñau laikoak egin daicla, eta eginkizun gatx orretarako ainbat arinon institutu sekularrak sortu daitezala. Institutu orreetan, laikoak eta sazerdoteak sartuko litzakez. Laikoak fabriketan lan egingo leuke, eta sazerdoteak apostoladu ori ondo egiten lagunduko leuskioe.


Frantziako gure kristiñau anaiak eginkizun aundia dauke begien aurrean. Seguru gagoz, arazo orretan al daien guztia egingo dabena. Ondo asi dira. Eurak ba-dakie txarto dagozana. Bildur barik azaldu dabe mundu guztiaren aurrean euren kristiñau bizitzaren gaixotasuna. Euren tzako gure zorianak eta otzitzak.

Eta guretzako zer? Gu ondo gagoz ala? Gure langille asko, kristiñauak ete dira? Benetakoa ete da euren fedea? Zelakoa ete da gure portu aundietako arraintzaleen siñismena? Bilbao aldeko faktoriatan lan egiten daben beargin asko, ez ete dira erlegiño kontuan Frantziako langilleen antzekoak? Gure langilleak salvetako, ez ete geunke egin bear geuk-berc, katoliko frantsesak egiten asi direana?

Pregunta bildurgarriak, sarritan geure buruari egin bear geunskiozanak.

Berriatua

MUNDUAN ZEAR



Frantzia

Erlegiñoa ta karreterazko trafikoa

Monsiñor Auguste Gaudel-ek, Toulon-eko obispo jaunak, publikatu egin ditu, karta pastoral baten, automovildunen faltak. Eta segiduan diño, orreek faltak benetako pekatuak direala, eta errudunak konfesatu egin bear ditueia, jakiñaren gaiñean edo nagikeriz egin badira.

Ona emen obispo jaunaren instan agertzen direan falta batzuk: veiozidade jarregigaz ibilli, aurreko automovilla itsumustuan pasatu, mozkorrik naiz erdi mozkorrik kotxea manejatu, direziño argiak ez eroan, edozer imprudentzia egin.

Toulon-eko obispo jaunaren der onen ostean, Paris-eko errevisa famadu batek diño ze, egunen baten «automovilizaiñen pekatuak» Frantziako katezismoetan agertuko direala projimoaren bizitzeari errespetua eukiten ume umetatik danak ikasi daien.

Frantzian eta mundu guztian, asko geitu dira aspaldion trafikozko akzidentek. Igaz, 8.000 persona il zirean Frantzian; laneko akzidentetan barriz, 3.000 persona bakarrik. Espainiako karreteretan, joan dan agostuan, 786 akzidente egon dira, 94 il eta 1.001 zauritugaz; akzidenterik aundiena, Galdakanokoa izan zau: 9 il eta 42 zauritu.

Aurtemein, joan dan iraillean (setembrean), Karreterazko Trafikoko XI Kon-

gresu Internazionala ospatu da Rio de Janeiro-n. Batzarra amaituta, informaziñozko dokumentu bat agertu da. Dokumentu orrek diño ze, akzidente geienak (63 %) konduktoreen erruz jazoten direala, euneko ogei kamiñoen egokera zantarragaitik, eta beste enparaduak eguraldi txarragaitik, oiñezkoen ardurarikezagaitik eta automovillen material txarragaitik.

Toulon-eko obispo jaunak ez dau gauza barririk esan. Bere meritua izan da, bere diozesian Eleizearen dotriñea zabaltzea.

Orain asko ez dala, auxe iñoan teologo batek Erromako errevisa baten: «Prudentzia barik automovilla manejatzea, pekatua da; eta pekatu ori autortu egin bear da.»

Bere aldetik, lengo Aita Santuak, Pio XII-garrenak, ille batzuk il baiño lenago, beste gauza askoren artean, auxe esan eutsen Erromako sermolarieri: «Gogora ekarri gura deusuet orain, zenbat persona ilten eta zaurituten direan automovildunen imprudentziagaitik (...). Onen errua ezin geinkio ezari zivilizaiño modernuari berari, kotxe konduktoreeri baiño, sarri askotan esperientzia ta ardura barik volantea erabilten dabelako (...). Erriko agintariak kastigatu egin bear ditue zirkulaziñoeko legeen kontra egiten direan faltak, eta neurriak artu, aurrerantzean egin ez daitezkan. Parrokoak eta sazerdoteak, euren aldetik, argitu egin bear dabe automovilizaiñen kontzientzia, Jaungoikoaren eta gizonen aurrean dauken erresponsabilidade morala ondo jakin daien.»

Vatikanoa

Akatolikoak joan leitekez
Batzar Ekumenikora

* Castel Gandolfo-n eta 2.000 pelegriñoren aurrean, agostuaren 30-ean, barriro verba egin dau Aita Santuak Kontzilio Ekumenikoaren gaiñean. Esan dau ze, «gure anaia aldenduak» Batzarrera etorri gura balebe, «bidezkoa» izango litzakela arrera ona eureri egitea, Eleizea euren etxea dalako, eurak bertatik aldenduta bizzarren.

* Aurtemein, kanonigo anglikano bat joan da Aita Santua ikusten. Beragaz verba egiten egoala, Aita Santua konturatu zan, eleizgizon protestantearen otoizliburua katolikoa zala, eta erabiliaren erabiliak erdi apurtuta egoala. Eta beste barik, bere breviario barrria eskiñi eutson aren orde. Kanonigoak, monja protestante komentu baten fotografiak erakutsi eutsozan, eta Aita Santuak eskatu eutson, Inglaterrara biurtutakoan, areeri monjeri esan eiola Batzar Ekumenikoaren alde otoitz egiteko.

Italia

Kastidatea gordetearren,
il leiteke kontrarioa

«Emakume batek ilteko eskubidea dauko, bere garbitasuna zainduteko». Auxe esan dau radiotik, irailiaren (setembrearen) lenengoan, Aita Virgilio Rotondi jesuiteak, Anna Sbrighi gaztearen kasuaren gaiñean pregunta batzuk egin eutsezanean.

Emeretzi urteko neskatilia onek il egin dau aurtemein, kutxillokada bategaz, amasei urteko mutil bat, beragaz abusetako beste lau mutillegaz beresi batera gogorrean eroan gura ebanean. Iitzaillea ta mutilak kartzelara joan bear izan dabe; baiña juczak beingoan itxi dau libre neskatillean.

Aita Rotondi-k onetsi egin dau magistradnaren erabagia. «Gorputzeko bizitzea zainduteko, agresore injustua iltea libre bada, deretxo beragaz il leike emakume batek bere garbitasuna kentzen jatorkona.»

Inglaterra

Protestante askok gura ei dabe
Erromagazko batasuna

Frederic O. Davis, katoliko egin da. Bere parrokian eta Ingalterra osoan, eleizgizon protestante onek zaratea naikoa atara dau aspaldion bere irakaspenakaz.

Inglaterrako Eleizea geldi geldika Aita Santuaren menpera ekarteko proposituaz, Frederic O. Davis-ek «beinbeñeko Eleiza» baten konbententzia irakasten izan dau. Bere asmoz, bienbitarteko Eleiza orretan, eleizgizon protestanteeri libre izango litzakioe ezkontzea, ingles verbetea erabiliko litzake liturgian eta tradiziño anglikano batzuk kontservatuko lirake, arik-eta Erromagazko batasun osoa etorri artean.

Baiña Sede Santuak, gauzak ondo ikusita gero, ez deutso ontzat artu proiektua. Erabagi onen ostean, Frederic O. Davis katoliko egin da bete betean. Bere ustez, guztiz asko dira eleizgizon anglikanoak, Aita Santuaren nagusitasuna ontzat artzen dabenak eta Erromagazko batasuna nai leukeenak.

Euskalerrria

Fraille Frantziskanoen
Zentenarioa

Urriaren lauan, Aita San Frantziskoaren egunean, Kantabriako Frantziskotar Provintzia ospe aundiagaz asi da zelebretan bere Errestauraziñoaren Eunurturrena.

Gauza jakiña da, Madrilleko gobernu liberalak, 1834-garren urtean, zelan bota zituan komentuetatik Espaiñiako fraille guztiak. Unada triste aretan, San Frantziskoaren semeak be, urten bear izan eben euren etxeetatik. Batzuk Euskalerrriko parrokietan, abade lez, bear egiten asi zirean. Beste batzuk extranjeruko komentuetara joan bear. Baiña, urte asko igaro orduko, barriro batu zirean lengo komentu zarretan, edo asi zirean beste barriak egiten. Ain zuzen be, orain eun urte, 1859-garrenean, barriro sartu zirean frailleak Bermeoko komentuan. Urte orretan asi zan Kantabriako Frantziskotar Provintziaren errestauraziñoa.

Ipar Europa nora doa?

Krisi morala

Latinoak eta anglo-saxonak arrituta geratzen dira, Noruega, Suezia ta Dinamarca-ko ekanduen nasaitasunaren aurrean. Esan leiteke, nasaitasun moral ori iru naziñoen karakteristika bat dala.

Wladimir d'Ormesson-ek, bere liburu baten (*Enfances diplomatiques*), anekdota simboliko bat dakar ango oituren gainean. Txikitan, Copenhagen, Dinamarca-n bizi izan zanean, uda demporan itxasertzeraz joaten zan etxekoakaz. Eurakaz batera, umezain lez, bertako neska gazte bat etorten zan. Neska dezentea zan bera. Alan ta guzti-bere, lenengo aldiz baiñu artzera joan zireanean, danen aurrean erropa bape barik sartu zan uretara. Umeen amak, guztiz lotsatuta, verbatxu bi esan eutsozan neskatillari, eta berak, iñoxente batek lez, auxe erantzun eutson: «Andrea, zer daukot ba nik tape-tako?»

Olako anekdota asko ekarri leitekez, eta sarritan ikusten dira olako exempluak Suezia-tik datozen pelikuletan. Baiña krisi moral ori, iñon baiñu obeto, neska-mutil gazteen arteko bizimoduan ikusten da.

Eskola guztiak, aspaldiko urteetatik, sexu bientzako dira. Bertan eskolan, ume eskoletatik asi ta universidaderarte, edukaziño sexual osea artzen dabe ikasle guztiak. Zeregin onetan asko lagunduten deutse mairueri periodikoak eta radioak.

Edukaziño onek ba-daukoz alde batetik bere ventajatuak; baiña bestetik, ikaragarrikoak dira kalte moralak. Esate baterako, Suezia-ko neskatillak —eta antzekoak izango dira urrean Noruega ta Dinamarca-koak— ez dakie aintzat artzen virginitasunaren balorea. Naziño orreetan bapeztu egin da geldi geldika kristiñau amodio ta ezkontzearen kontzeptua. Onegaz dana dago esanda.

Familiaren ondamendia

Iparaldeko protestanteak galdu egin dabe sakrifizioaren zentzuna. Zegaitik? Aspaldiko urteetatik, lar ondo bizi direlako eta bereratasun geiegi daukelako.

Euren bizimodu erreza ez galtzearen, ez dabe ume askorik euki gura. Gazteak, orregaitiño, matrimoniñorako bape preparaziño barik, itsumustuan ezkontzen dira. Baiña, sakrifiziorik egiten ez dakien lez, askok ez dauke beste arreglubiderik, divortzioa baiño.

Ona emen numeru batzuk: Orain eun urte, euneko lau divortzio bakarrik egon zirean Suezia-n; gaur egunean barriz, euneko berrogetamar. Stockholmo-n, esate baterako, lau urteko ezkonbarrien artean, euneko berrogetazortzi divortziatu dira. Divortzio geienak modu onean egiten dira, okasiño ta asarrekuntza barik. Zenbateraiño nasaitu dan ezkontzearen batasuna!

Divortzioaren gainean esan dana, bardin bardin esan leiteke abortuen gainean. Orain dempora asko ez dala, zarata aundia atara eben notizia bik mundu guztian. Suezia-tik etozan barri biak.

Lenengoak esaten eban ze, mediku ta enfermera talde bat, eskola normal eta institutuetan, abortuaren eta jaiotza kontrolaren gainean leziñoak emoten ebillela.

Bigarrenak, Stockholmo-ko Emagintza Hospitalako zuzendariaren dimisiñoa zabaldu eban. «Ezin dot jarraitu geiago nire karguan hospital onetan —deklaratu eban doktoreak—, ainbeste krinen ikusita gero. Bein baiño geiagotan, sei illebeteko umekieri be ez jake mundura etorten itxi.» Zetan esan be ez, abortuaren alde dagoz gobernuko legeak.

Ementxe, familiako bizitzaren egokera triste onetantxe igarten da, beste ezotan baiño obeto, Ipar Europa-ko zivilizaziñoaren ekilibriorik eza. Krisi onen aurrean, asi da Elciza protestantea neurriak artzen; baiña sarritan, oraingo problema gatxen aurrean, aikolo-maikolo ibiltzen da, eta erriak ez deutse lengo lez jaramonik egiten.

Elciza Katolikoa barriz, guztiz txikia izanarren, gero ta sendoago agertzen da, eta bere irakaspenakaz influentzia naikoa egiten dau protestante zintzoen artean.

Ipar Europa-k ondameudira joan gura ez badau, teknikan eta politika sozialan barik, errealidade espiritualetan aurkitu bear izango dau bere zoriona.

MONJA KONTEMPLATZAILLEAK

Noruega Lourdes-era joaten direan gitxi visitetan dabe Monja Dominiken komentua. Grutatik urruntxu dago, eta luzetxu egiten da bertarako bidea. Arbolaz inguratuta dago, toki eder eta baketsuan. Komentu orretatik, orain zortzi urte, iru monjak urten eban, Noruega-ko uri nagusira joateko. Eta aurtengo bagillean (junio), Oslo-ko monasterio barriaren fundaziño kanonikoa egin da. Presente egon da zeremonian Lourdes-ko Obispo jauna. Beñolako iru monjak, amabi dira orain, monja kontemplatzaile komentu bat orniduteko nai-koak.

Noruega-k iru milloi terdi habitante daukoz gitxi gorabeera. Euren artean bost mila katoliko bakarrik. Proportziño barragarria benetan. Egia esateko, ozta ozta asmetan da Noruega-n Eleiza Katolikoaren presentzia.

Europa-ko iparraldean guztiz gatxa da gaur egunean katolizismoaren zabalkundea. Zabalkunde orren areriorik aundiena ez da protestantismoa, paganismoa baiño. Asko epeldu da aspaldiko urteetan aintxiñako protestanteen herotasuna. Oraingoak, erdi paganoñu egin dira. Zibilizaziñoaren aurrerapide ta bereatasun guztiak daukez, eta bizimodu nasai orregaz geldiro geldiro galdu egin ditue kristiñau erlegiñoaren sentimentu ta normarik elementalenak.

Baiña Jaungoikoarentzako ez dago gauza gatxi. Aurrerantzean, Noruega-ko bost mila katolikoak euren alboan eukiko dabe Monja Dominiken adoraziño ixilla ta etenbako penitentzia. Eta protestanteak eta paganoak, exemplu ederra. Lourdes-ko Obispo jaunak esan eban lez, Oslo-ko monjak, antigualeko kristiñauen antzera esan leikee: «Non multa eloquimur, sed vivimus», ez dogu verbakaz prediketari. bizimoduagaz baiño.

Duda barik, euren presentziak mesede aundia egingo deutso Noruega-ko Eleiza Katolikoari.

Euskalerrria Gipuzkoako Oñate-ra joaten direanak, arrituta geratuten dira ango eleiza nagusiaren edertasunagaz. Baiña konturatu-bere ez, dira egiten parrokia ondoko monja kontemplatzaile komentuagaz. San Frantziskoaren Irgarren Ordenakoak dira. Aintxiña, Arantzazuko Ama Virgiñearen lenengo ermutea egin zanean, bertan bizi izan zirean, erdi monja lez, eleizatxua jagoten eta pelegriñoak serviduten. Orduan «serorak» deituten eutsen. Gero, Oñate-ra jatsi zirean, eta Santa Ana-ko komentuan oraziño ta kontemplaziñozko bizitza barri bat asi eban.

Komentu orretatik, laster, monja batzuk Bermeo-ra joango dira, eurontzako egingo dan monasterio barrian biziteko. Ain zuzen be, joan dan illean, setembre 13-an, lenengo arria ipiñi zan.

Egun orretan, Bermeo-ko seme ospetsu batek, Monseiñor Karlos Anasagasti-k, meza pontifikal eder bategaz zebratu zituan San Frantzisko eleizan bere urrezurizko sazerdote ezteguak. (Monseiñor Karlos Anasagasti, El Beni, Bolivia-ko Obispo jauna da, eta azken illeotan gure artean daukogu).

Gero, mezea amaituta, danak —Obispo jaun, fraille nagusi, parroko jaun, erriko agintari ta abar— San Martin aldera joan zirean, monja komentu barria egingo dan tokira, eta zeremonia simple bategaz ipiñi eban Obispo jaunak lenengo arria.

Seguru gagoz, komentu orrek Bermeo-ko erriari mesede aundia egingo deutsola. Noruega-n baiño askoz gitxiago izanarren, Euskalerrrian be eurrez sartu da aspaldion paganismoa. Orregaitik, ondo etorriko jakez Bermeotarrerri monja kontemplatzaileon ototzak eta penitentziak.





EMAKUMEAREN TZAKO

«Cola de caballo», orraztuteko modua

«Kontuz ibilli. Ogei urtera orduko, ule barik geratuko jatzuez alabak». Auxe esan deutse Albert Slepyan doktoreak, Nortamerikako Highland Park hospitaleko medikuak, «cola de caballo» modura euren alabak egunerorraztuten dituen emakumeeri.

Dermatologo famadu onek, interes aundiko artikulu bat argitaratu dau oraintsu Estadu Alkartuetako errevisa zientifikoko baten. Bere lanetik ataraten direan konklusioak indarra naikoa dauke, modea dala-ta, ulearen osasunaren kontra orraztuten direan neskatiak ikararuteko.

Aspaldion, kontaeziñak dira Slepyan doktorearen kontsulta gelatik igaro direan ama-alabak.

—Doktore Janna —esaten eutsen ama askok—, nire alabeari pilloka jausten asi jako ulea. Eta orainarte emon deitsadazan loziño ta igurtzaldi guztiak alperrik izan dira.

Medikua bera be, zati luze baten, turduta egon zan, alopezia klase bari orren kausea topaeziñik. (*Alopezia* deituten jako verbeta zientifikoa ulearen jauste anormalari).

Baiña geró ta gero be, gauza bategaz konturatu zan: beragaz itunduten etorri zirean neskatiilla guztiak «zaldi buztan» modura orraztuten zirean. Eta orrazketa ori aurrerantzean ez egiteko agindu ta beste barik, beingoan osatuten zirean. Neska bari edo biri, orregaitiño, ez eutsen geiago uleak urten. Ori ikusita, konklusioño au atara eban: «Zaldi buztan» orrazketea kaltegarria da, eta kalte ori arregiaeziña izan leiteke kasu batzutan.

Izan be, okerkuntza izugarria da, fisiologiaren aldetik, uleari atzerantz ten egitea, bere jit naturala bekokirazkoa da-ta. Orregaitik, uleak azkenean vengantza artzen dau,

naturalezaren kontra orraztuten direanakaz. Ule sustraiak mindu egiten dira, eta ule narrua anditu. Gorriunetxu bat agertzen da azalean, ulea asten dan lekuan; sarritan gorriunetxu ori zoldu egiten da eta azkurea emoten dau.

Illebete batzuarrenean, ulea jausten asten da, eta ulebako une txiki batzuk agertzen dira. Auxe izaten da peligraren lenengo seiñalea.

Alan ta guzti-bere, peligruari kasu egin barik, lengo lez orraztuten jarraitu ezkeror duan pilloka jausten asten da ulea, bekoki aldean lenengo, belarrien ondoan eta buruaren atzeko mandan urrengo. Batzutan buru erdi erdian agertzen dira ulebako tarteak. Eta —txarrena dana— tarte orreetaz dau uleak geiago urtetan sari askotan.

Ez da izan Albert Slepyan doktorea bakarrik, orraztuteko modu orren kontra verba egin dauana. Beste mediku batzuk-bert bardin verba egin dabe. Euren artean, Agnes Savill doktoreak. Inglaterarako andra jakitua onek, interes aundiko artikulu bat idatzi dau aurtemein bere aberriko errevisa baten, zorrioneko «cola de caballo» orrek egiten dituan barrabaskerien gaithean.

«Groenlandia-ko emakumeen artzan —diño Savill doktoreak— ulemurri asko ikusten dira. Zegaitik ulemurritasun ori? Dudu barik, ango emakumeak aintxiñatik «zaldi buztan» modura orraztuten direalako. Bardin jazoten jake Iparramerikako emakume baltz askori, buruko txirikilluak kentzeko ulea atezu atezuan eukiten dabelako.»

Baiña ori gorabeera, orraztuteko modu ori ez da kaltegarri izaten, noizik noizera bakarrik erabilten bada.

Ba-dakizue orain, Euskalerriko ama-alabak. Kontuz «cola de caballo»-gaz.

BIZKAIKO BERTSOLARIAK

*Zorionak Bizkaiko bertsolari guz-
tieri. Zorionak bertsolari txapelketea
gure artean atondu dabeneuskal-
tzaleeri. Euskerea biztu gura bado-
gu, bide egokitik joan bear dogu.
Oraingoan beñik bein aurkitu dogu
bide ori: bertsolarien bidea, zabala,
erreza, gozoa, samurra, erriarena.*

*Ugaritu daitezala gure artean ber-
tsolariak. Entzun eragin daiezala
euren bertsoak Bizkaiko manda ba-
tetik bestera. Bertsolariak ez di-
reanak, ikasi daiela euskeraz egiten
areen askatasun eta erritasunagaz.*

*Guk, «Anaitasuna»-n idazten do-
gunok, beti maite izan dogu erri-
ren euskerea. Orregaitik asko poztu
gara Bizkaiko bertsolarien agerkun-
tza arrigarri onegaz. Eta pozarren
argitaratuten doguz orain, Bilbaoko
bertsolari txapelketea ikusita gero,
Eusebio Erkiaga-k bialdu deusku-
zan bertsoak.*

Ugaritu ta obatu dira
bertsolariak Bizkaian,
neurri kontua ba dakie ta
puntu zuzena (i) amaian;
bertsoak errez asmetan dabez
bai plazan eta bai maian,
egoki jakoz gure Erriari
orainaldiko garaian.

Aurten txapeldun geratua da
Muxika aldeko Enbeita,
maisu jator ta ezaguna zan
edonun beronen aita;
jatorriz dauka, agiri danez,
neurtitzetarako jita,
alanbearrez soñu ta bertso
artean dago azita.

Azpillaga da (i) azaldu jakun
itxarokizun lorea,
Artibaitiko perla oindiño
gutziz txukundu bagea;
aots zolia, izkeraz eder,
sasoi oneko gaztea,
Euskereari emongo deuta,
bikaintasunez, ospea.

Onein ondoan ikusi doguz
txairo, beste lau errege:
ziri zorrotza gerturik daukan
Larrauri-ko (i) Ormaetxe;
urduritasun aundiz dabillen
Alberdi diñot ementxe,
Pujana-k nasai bere (i) esanak,
Sardui-k neurria legetxe.

Antxiñakoak esaten eben
«jokoa ezta errenta»,
orren ondoan danontzat ei da
«obe, oilloa erreta».
Txapelketea (i) amaitutean,
nausi soilla bear eta
danen gustua egin nai, baiña
danok ez bardiña seta.


Bizkaï osoko bertsolariei
garaiez jaken dei egin,
bear dan legez zerak egiten
iñok egin dau alegin;
baten batzuek azken orduan
nunbait artu ba dabe min,
tamalez, jaunak, lenen sariaz
guztiak etxera ezin.

Aitaturiko seiren jarraian
ba daukagu sail zabala,
bertsolariak ogetamartik
gora (i) agertu dirala;
euron artean ba dira onak,
Mugartegi bat, itzala!
urren burrukak eztabe emongo
buruaustea makala.

Bizkaia orain, zorionean,
emengo zeren egarri,
bertsotarako antxiñan legez
zaletasuna ugari;
odol gurea eztaigun uka,
eskubideak aldarri,
gure artean, Jaungoikoak nai,
euskeraz beti alkarri.

(Lekeitio-n, 1959-ko iraillaren 8-an)

Erkiaga, Eusebio



Osteratxu bat

Burdinbidea, trenbidea, luzatu eben ez-kero, Gernikatik Bermeorako joan-etorria arin eta errez egiten da.

Aurtengo irailleko (setembreko) arratsalde argitsu baten egin genduan geuk-bere osteratxu ori, eta bere ikuspegi alai eta ederragaz oso mirarituta biurtu gintzazan.

Treanean sartu eta larregi ibilli orduko, txartzelzaiña agertu jakun: gizon mardul eta begikoa eta ezpanetan, erdi erreta, txokor bat eroiana. Irribarrez txartzelak eskatu, bere zeregiña bete, eta arratsalde onak emonaz, bere bideari jarraitu eutsan.

Ondotxu eta alai bizi dan antza jaukok onexek!

* * *

Gero Atxaga, txori toki berezia, amaikatxu txinbo guri ta koipetsu ilniko lekua. Gure Atxirika bizi balitz, esango leuke.

Murueta, bere astilleruan ontzi asibarri bi agirian direala, eta... San Kristobaleko geltokia. Emen inguruan, aspaldiko urteetan ikusten zirean antzar eta paita aldrak, asko gitxitu dira; eta dagozanak bere, esituta dagoz. Bai bai! Ementxe zubipean batez bere, artzen zirean kiskilla ta karramaru aziak jan eta birrindu zituezan, eta naikoa egin eben.

* * *

Sukarrietara eldutakoan, geugaz batera etozan ume ta andrak, atxarteetara ta Laidako areatzara joateko, ementxe jatsi zirean, eta erdi bakarrik geratu giñean.

Bakarrik? Ona emen oñifordekoak: Ijito emakume eskale gogaikarria, besoetan ume txikia eta eskutik beste nagusituango bat ekarrela. Irurak loi zikiñez beteak, iñoiz ez ulerik orraztu ez arpegi ta esku garbitu dabenak.

Aurtemin Lourdesko Ama ikustera joan zirean sei milla ijitoak, periodikoetan ikusi genduan, ondo garbi, txukun eta alai agertzen zirean bai! Baiña emendik dabiltzazanak, ez dira areen enda ta taiukoak, antza.

* * *

AASTE - BORRASTE

Eta ara aurrean Bermeoko paseoleku zabal ederra. Bere jezarleku ugarietan, itxastar izandako agure zaarrak, pipia erreaz, kontu-kontari; baltzez jantzitako andra maratz eta langilleak esku artean orraz-jantxuekin, eta an-or-emen neska-mutil kokkorak olgetan. Nunbait gazte bat edo beste bere bai.

Portuan, itxasontzi banaka batzuk baiño ez; beste gñztiak itxaso zabalera atunetan joanak dira. Askotxu ekarriko al dabel!

* * *

Santa Eufemiako eleiza agurgarri eta zarrera sartu-urtentxu bat egin; arrantokura, arrain bakan eta ontxuren bat ete dagoan, ikustalditxu bat emon; Ertzilla-ren Erakustokira (aintxiñako Pilatosen etxera), atetik baiño ezpada bere, begiratutxu bat jaurti, eta andik gora, Torrontero-tik eta Tala-tik zear, egoaize garbia arnastu eta bular eta biri goi goraiño beteaz, ibiltalditxu txiki baiña osasutsu, onuratsn eta pozkor bat egin genduan.

Eta guztia esateko, au bere bai: Antxo Bermeon artu genduan sekulako kafe-esne egoki egoki bat. Merke merkea ez zan izan baiña gozoa, usaintsua ta beroa, ori bai.

* * *

Estaziño guztietako orduariak, erlojuak, arpegi bikoak izaten dira beti edo geienetan. Eta Bermeokoa bere bai. Baiña aral Ementgoan arpegi batean bederatiak zirean, eta bestean zazpi ta laurenak. Eta illunabarrasita egoalarik, auxe, bigarren auxe ontza emon bear, etxera garaiz etorri nai bagenduan.

* * *

Txartzelzain berbera agertu jakun barru bere. Musturrean txokor erdi errerik ekarren; baiña jakearen eskerraldeko eguleko aletxuan larrosa gorri andi bat, eta aldemeneko sakeletxutik erdi diingillizka, sedazko zapi garbi polit bat... bai.